

20. zenbakia / 2010eko uztaila

Leizako  
aldizkaria

# Marmari



- Leizako Forua
- Elkarrizketa: Begoña Lazkano
- Maite duzun hitz hori
- Leitza Mikel Illarregiren begietan
- Munduko hotsak Leitzaan
- Eta gehiago...

Harri, herr  
irri, orri, urri...

Leizako  
aldizkari  
gaztea

10 URTE!  
20 ZENBAKI

Etorri



# zenbaki honetan:



● 3. orr. Aurkezpena

● 4-7. orr. Leitzako Forua

● 8. orr. Zenbat buru, hainbat aburu?

● 9-11. orr. Elkarrizketa: Begoña Lazkano

● 12-13. orr. Leitza Mikel Illarregiren begietan

● 14-16 orr. Marmari aldizkariak 10 urte

● 17-19. orr. Maite duzun hitz hori

● 20-23. orr. Elkarrizketa: Ateka Gaztetxea

● 24-26. orr. Munduko hotsak Leitza

● 27. orr. Denborapasak

● 28. orr. Eta zuk, zer diozu?

# 10 URTE! 20 ZENBAKI

**H**amar urte egin ditu Marmari aldizkariak. 20. zenbakia da eskuartean duzun hau. Gure bizitzan gauza batzuk dezente aldatu dira 10 urte horietan, eta beste batzuk orduan bezalaxe daude. Gauza bera esan liteke gure aldizkari honetaz.

Orduan bezala, 28 orrialdeko aldizkaria duzu Marmari, urtean bi aldiz argitaratzen dena. Eta orduan bezala, euskara eta herria dira aldizkaria etxe guztietara banatzera bultzatzen gaituztenak.

Hizkuntza, beraz, alde batetik: euskararen erabilera indartzea, euskaraz irakurtzeko ohitura sendotzea eta bizkortzea, euskararen inguruko gaiak lantzea, gogoeta eginaraztea... Eta herria, —eta herritarrak, jakina— beste aldetik: duela 10 urte bezalaxe, gaur ere herrigintza sustatu nahi genuke, herriaren gai-

neko ezagutza hobetzen lagundu, eta herriaren bizitasunari, besterik ez bada, bultzada txiki bat eman.

Marmarik, horrenbestez, eusten dio hasierako helburu eta gogo horri. Aldizkariak, nolana ere, aldaketa batzuk ere izan ditu. Hasierako zenbakiak Marmari ize-neko euskara taldeak egin zituen. Talde hark bere ibilbidea bukatu zuenean, aldizkariaren ardura Leitzako Udalaren euskara zerbitzuak hartu zuen bere gain, eta orduz geroztik haren ardura da aldizkaria.

Aldizkariko gai nagusiak lehen-go berberak dira —euskara eta Leitzako, alegia—, baina atal batzuk ere berrituz joan dira, berriak ere sortu dira, eta beste batzuk desagertu.

Eta 10 urteren ondoren, agian, balantzea egiteko garaia da. Baina balantzea kanpotik jasotako iri-

tziekin egin nahiko genuke guk. Tarteka motelaldiren bat izanen zuen aldizkariak ziur asko, zenbaki hobeak eta kaskarragoak aterako ziren, eta, zalantzarik gabe, beti izanen dugu zer hobetua. Sarritan, egilearentzat zailagoa izaten da hobetu beharreko hori zer den antzematea, eta zinez eskertuko genituzke gauzak hobetzen lagunduko diguten kritikak, ekarpenak, gogoetak edo ideiak. Nahi izanez gero, zuen iritzia edo ekarpenak [лага@iparmank.org](mailto:лага@iparmank.org) helbidera bidal ditzakezue; pozik jaso eta kontuan izanen ditugu.

10 urte, beraz, eta gure asmoa lan honekin jarraitzea da. Marmari aldizkariak herriari nolabaiteko ekarpena eginen diolakoan gaude, eta ekarpen hori mantentzen eta hobetzen saiatuko gara, zuek denak bidelagun izanen zaituztegunelakoan.





# LEITZAKO FORUA

**L**eitzak historia aberatsa izanendu, zalantzarik gabe. Makina bat istorio txikik eta handik osatua. Historia horren zati txiki bat ezagutzen dugu, eta beste hainbat kontu inon jaso gabe gelditu dira. Garai bateko edo oso aspaldiko kontuen berri izatea ez da erraza, baina badugu aztarnaren bat edo beste. LEITZAKO FORUA da horietako bat.

Leitzako Udalak egindako beka-deialdi baten ondorioz, Leitzako Forua jasotzen duen agiria aurkitu eta haren gaineko lan bat osatu zuen Goretti Calderon leitzarrak. Lan horretan foru horren gaineko azalpenak, argibideak eta forua bera jasotzen dira, eta hura kontsultatzera gonbidatu nahi zaitugu. Liburutegian aurkituko duzu lanaren kopia bat.

Artikulu honetan, Gorettik egindako lan interesgarri horretatik ideia batzuk ekarri ditugu, lanaren nondik norakoa ezagutu dezazuen, eta lana bera irakurtzera anima zaitezten. Honatx bertan aipatutako zenbait kontu, laburtuta eta moldatuta:

## Atarikoa

Erdi Aroko nekazari eta abeltzainek sortu zituzten gaur egun ezagutzen ditugun herriak. Horietako batzuen arrasto ugari aurkituko ditugu artxibetan, baina beste batzuk ia ez dira baterre agertzen. Leitza da horietako bat.

Leitza idatziz aipatzen den lehendabiziko agiria Antso Nagusia Iruñeko Erregeren garaikoa da (1004-1035). Iruñeko Katedralaren jabegoen erroldan agertzen da Leitza, baina agiri ho-

rreren egiakotasuna zalantzazkoa da, eta tentu handiz hartu behar da.

Agiri horretaz gain, 1192. urtekoa da Leitzaren aipamena egiten duen lehendabiziko testua. Urte horretan, hain zuzen, Antso Jakintsua erregeak Leitza eta Aresori forua eman zien

Eta zergatik ez da Leitza garaiko agirietan ia agertzen? Gorettiren lanak azaltzen digunez, “Iruñeko katedralak eta Leireko, Iratxeko, Irantzuko, San Juan de la Peñako eta Donemiliagako monasterioek, garai hartako erdigune erlijiosoak zirenek eta botere politikoa-ri estuki lotuta zeudenek, ez zuten apenas jabetzarik mendialde osoan, eta Leitza ere ez zuten”. Horretaz gain, gogoratu behar da 1421. urtean gaztelauk eragindako sutean udal artxiboa ere erre zela. Hango agiriak suak erre

zituen, eta, ondorioz, artxiboko dokumenturik zaharrenak XVI. mendekoak dira. Ez dugu hori baino lehenagoko agiririk.

### Zer da Forua?

Gorettiren lanean honela azaltzen da: “Foruak botere politikoaren eta herriko komunitatearen arteko erlazioaren arauak finkatzen ditu. Foruak ez du ez herririk ez hiririk ezerezetik sortzen. Beti aldez aurretik dagoen errealtate batera moldatzen da, aldi berean gero-rako bilakaera orientatu nahi duelarik”.

Foru guztiak ez ziren berdinak, jakina, eredu asko baitzegoen, herri txiki-takoak besteak beste: Leitzakoa era horretakoa da, hain zuzen ere.

Eta zer arautzen du foruak, zehazki? Bada, esate baterako, *petxak*. Alegia, jaunari (erregea, apezpikua, abadea edo jaun laiko bat) ordaindu behar-koa, espezetan edo dirutan. Ordainketarako, bestalde, bi sistema zeuden: etxe bakoitzak berea ordaintzea (Leitzan hala egiten zen), edo ordainketa komunitate osoak bere gain hartzea.

Eta zergez gain, bestelakorik ere arautzen al zuen foruak? Bai, foru askotan justizia ere arautzen zen. Erregeren eta haren ofizialen esku zegoen justizia eta isunak jartzea; hilketak zirela-eta, esate baterako.

### Leitzako eta Aresoko Forua

Leitzako eta Aresoko foruaren dokumentua Nafarroako Artxibo Orokorrean dago. Originalik ez dago, eta hiru kopia daude bertan, pergaminioan idatzita, idazkera karolinoan, latinez, eta ongi kontserbatuta.

1192 eta 1194 artean Nafarroako erregeak hamasei foru eman zituen nekazari-komunitateetan, tartean Leitzako eta Aresoko forua, 1192koa. Larraun, Gulina, Basaburua, Odieta, Eratsun, Saldias, Beintza eta Labaiengoak ere urte horretakoak dira.

Foru horiek emateko arrazoia errenten sistemarekin lotuta zegoen, errege-



Arrano Beltza, Antso III.a Nagusia erregearen zigilua.

ak sistema hori berritu egin nahi baitzuen. Onartutako foru horiek fiskalitatea, justizia eta jurisdikzioa arautu zituzten.

Gorettiren lanean foruaren testu osoa transkribatuta ikus daiteke. Baita testua euskaratuta ere. Handik hartu dugu itzulpena, eta hauxe da testua:

*Leitzako eta Aresoko gizonei eman-dako foruaz*

*(Krismoia) Jesukristo gure Jaunaren izenean. Nik Antsok, Jaungoikoaren graziagatik Nafarroako errege naizen honek, Leitzako eta Aresoko gizonei*



Juan Ricci Antso Nagusia. San Millan de Yusoko monasterioa.

*ematen diedan foruaren berrespen-agiri hau egiten diet.*

*Oraingo zein geroko gizon guztiek jakin bezate, nire nahiak eta borondate askeak eraginda, nahi izan dudala Leitzako eta Aresokoei foru moduan hau ematea, alegia, petxa eman behar dutenek urtero launa sos ordain ditzatela, eta ordainketa maiatzaren azken astean egin.*

*Emakume alargunak direla eta, hau xedatzen dut eta eman: alargunen bategen etxean gizonik badu, eta beraz horregatik petxa osoa ordaintzerik badu foruaren arabera, petxa eman behar duten gizonetako batek beste ordain dezala. Ordea, etxean foruaren arabera petxa osoa ordaintzea dakarren gizonik ez duten beste alargunen kasuan, hau nahi dut eta agindu, lauren artean petxa eman behar duten gizonetako batek beste ordain dezatela. Eta emakumeek euren petxak urtero maiatzean ordain ditzatela, gizonek eurenak ordaintzen dituztenean.*

*Hau ere ematen dut. Leitzako eta Aresoko inork, gizonak zein emakumeak, bereak diren zerriak baditu, urtero zerri bat baino ez du eman behar, zerriak dituen urteetan, San Andres jaian inguruan. Eta Leitzan zein Areson bazkarik ez balute, leitzarrek eta aresoarrek euren zerriak nire lurretan bazka topatzen duten edonora eraman ditzatela, eta ez dezatela haiengatik bostena eman. Baina, arrotzen zerriak mendira eramaten badituzte, hauen bostena eman dezatela.*

*Esandakoaren ostean, hau ematen diet eta agindu: ez diezaiotela eman jaunari, ez merioari, ez beste edozein gizoni, bestelako petxarik, ez badira gorago aipaturiko diruena eta zerriena, eta homizidioak eta gainerako isunak. Hauek, gertatzen direnean ordain ditzatela agintzen dut.*

*Gorago idatzitako foru hau Antso Nafarroako erregea naizen honek Leitzakoei eta Aresokoei ematen diet, bai eta haien ondorengo guztiei, niregana-*



Leitza historia idatzian sartu aurreko garairako, bestelako lekutasunak ditugu.

ko eta nire ondorengoenganako fidel-tasuna betirako gordetzen dutela.

*Iruñean egindako agiria, urrian, aroko 1230. urtean [1192], ni Antso Nafarroan eta Araban errege.*

*Antso Nafarroako erregearen zeinua.*

*Pedro Iruñean apezpiku; Fernando Rodrigezek nire eskutik Lizarra daukanean; Migel Leratekok Zangotza; Almorabidek Aibar; Martin Subizakok Kaseda; Pedro Martin Letekok, Artaxona; Eneko Oritzekok, Erga; Gartzea Baztangok, Deikaztelu; Fortun Baztangok, Tafalla; Martin Radakok, Kaparoso; Gartzea Oritzekok, Amaiur; Pedro Ladronak, Aitzluzea; Pedro Ramirezek, Gasteiz; Gartzea Perez Morieta-kok, Portilla; Martin Enekoizek, Laguardia; Hurtado Arabakok, Zaitegi.*

*Fernando artzedianoa Nafarroako erregearen kantzilerra izanik, agiri hau Fortun Urrotzekok idatzi du*

### Zenbait ondorio

Hori da testuak dioena. Testuak berak eta agiriaren inguruan ditugun datuek, bestalde, zenbait kontu erakusten diz-

kigute, eta hortik zenbait ondorio atera daitezke. Horietakoz batzuk jaso dira laburtzen ari garen lanean. Honakoak, besteak beste, ia hitzez hitz Goretiren lanetik hartuta:

- Leitzak ordainketak dirutan egiten zituen. Zergatik? Agian lurraldeko biztanleek produktuak komertzializatzeko gaitasun handia zutelako (burdina, ganadua...). Ziurrenik abeltzaintza izango zen herriko jarduera nagusia; lur zabalak eta herri lurra ugariak ziren Leitza, eta zergak nekazaritza-tik lortutako produktuekin ordaintzeko zailtasunak zituzten biztanleek. Animaliak eta hauetatik lortzen zutena salduz dirua lortzen zuten, leitzarrekin ordaindu beharreko zergak dirutan kobratzea erabaki zuen Antso VI.ak.

- Leitzakoa foru apala dugu, abeltzainen eta nekazarien komunitate bati emandakoa, garai hartan zenbait haran eta herriri eman zitzaizkien "foru txikiak" tankerakoa, eta ez Lizarra edo Zangotzako hiritarrei emandako foru luze eskuzabalak bezalakoak.

- Foruaren funtsa fiskalitatea arautzea da. Lehenengo zentsua, garrantzitsua, petxa dugu. Nafarroako erregeak leitzarrei eta aresoarrei etxeko lau soseko petxa ezarri zien, alargunen salbuespenarekin, hauek sos bana ordaintzen baitzuten. Hots, banakako petxa ezartzen zuten foruen artean kokatu behar dugu, eta hauen barruan, dirutan ordaintzen zuten artean. Sailkapenaz harago, zer esaten digu honek? Haste-ko, herri hauen bizimoduaz hitz egiten digu. Dirua lortzeko merkatura jo behar da, eta, askotan pentsatzen denaren kontra, mendialdeko abeltzaintzak harreman estuagoa izan du historikoki merkatuekin nekazaritzak baino. Hau konfirmatzen da petxaren kobrantzaren sasoiari so egiten badiogu. Maiztean egin beharra abeltzaintzaren ziklo naturalarekin lotuta dago, udaberri-ri izaten dituztelako umeak bazka animaliek eta maiatzaren azkenean negua pasatzeko gune baxuagoetara lekualdatzen ziren animaliak berriro ere mendira igotzen zirelako.

- Leitzako eta Aresoko foruan ez dira petxa zor dutenen arteko kategoriak aurkeztu. Horrek esan nahi du herri hauetan jaunaren presentzia oso urria zela. Hala ere, "petxa eman behar duten" gizonak aipatzen dira, eta horrek esan nahi du bazirela batzuk petxaren menpean ez zeudenak: aitonen semeak, erregearen ofizialak, elizgizon batzuk...

- Petxa ez zen 1192.ean sortu, arautu baizik. Erregearen erabakiak ez zuen iraultza bat eragin Leitza eta Aresoko komunitatearen barruan, baina bai hobekuntza bat guztientzat. Zergatik esaten da bestela zerri bat baino gehiago ez zutela eman behar? Ordura arte, sistematikoki edo aldika, ez dakigu, gehiago ere kobratu izan zitzaielako.


- Etxeaz eta emakumeaz ere hitz egiten da. Batetik, etxearen kapital nagusia lan-indarra zen, abeltzaintzan, basogintzan edota labakietan aritzea ahalbi-



detzen zuena zelako. Bestetik, xedapen horrek erakusten du pentsatu ere ez zutela egiten emakume bat etxe baten buruan egon zitekeenik, alarguna ez bazen. Emakumea etxekoandrea izan zitekeen, eta oinordekoa, baina gizarte tradizional guztietan bezala, etxea herredatzen bazuen, ahal bezain laster ezkondu egin behar zen. Beraz, etxearen buruan agertzea senarraren galtzearen ondorio baino ezin da izan.

- Foruak arautzen duen bigarren ordainketa ere ganaduaren garrantziaz mintzo zaigu. Leitzarrek eta aresoarrek zerriak bazeuzkaten, urtero San Andres inguruan, azaroaren 30aren bueltan, animalia bat eman behar zuten. Horri abantaila berezi bat erantsi zitzaion, beste inon agertzen ez dena. Bazka falta izanez gero, herri hauetako auzoek erregearen lurretako bazka aprobetxatzeko eskubidea zuten, askatasun osoz, eta edonondik. Hona hemen berriro foruen politikaren ezaugarri bat: alde zaurretik zeuden jarduerak arautu ez ezik, bultzatu ere egiten ziren. Horretaz gain, pribilegioek ekar zitzaizkien istiluei aurre egiteko ahalegin bat dago, honelako eskubideek ustelkeriarako bidea ematen zutelako. Errenta baten truke leitzarrek eta aresoarrek arrotzen urdeak erregearen lurretara eramateko tentaldia izan zezaketelako, argi utzi nahi zen foruan herri hauetako auzoek ez ziren zerri taldeek ohiko bostena ordaindu beharko zutelako. Artxiiboak mutuak badira ere, zenbat gatazka ez ote ziren sortuko hurrengo urteetan, erregearen basozainen eta leitzarren eta aresoarren artean, urdeak arrotzek ala bertakoenak ziren, bi herrietako lurretan bazka nahikorik zegoen ala ez...

- Ordaintzeko garaia ere sei herri hauetan berdina zen, maiatzaren 29an, eta aurretik aipatu bezala animalien ziklo naturalari lotuta zegoen. Honek are gehiago azpimarratuko luke abeltzaintzak zeukan pisua. Azkenik, interesga-



Leitza eta Aresoko forua.

ria da ikustea nola herri hauek taldeka agertzen diren –bikoteka Leitza eta Aresoren kasuan–, eta foruek entitate bakar bat izango balira bezala tratatzen dituztela. Ikusi dugun guztiaren ostean, berriro ere lurraldearen kontrol komunitarioaren eta herri hauek konpartitzen dituzten, eta beraz komunean kudeatzen dituzten mendien garrantzia da agerian geratzen dena

- Forutik, 1268ko hamarretetik eta 1280 petxatik ateratako datuek erakusten digutenez, Eratsun, Saldias, Beintza, Labaien, Leitza eta Areson abel-

tzaintza jarduera ekonomiko nagusia zen, eta jaunen aztarna ia ez da igartzen. Horrek adieraziko luke komunitate sendoak zirela, eta herritarrak izango zirela lurraldearen kontrol erreala zutenak.

Honaino, beraz, gure laburpena. Esan bezala, testua liburutegian kontsultatu dezakezue, hona ekarri ezin izan ditugun beste hainbat datu eta ideia ezagutzeko. Animo, eta segi herriaren inguruko kontu gehiago ezagutzen eta ikasten!

# Zenbat buru, hainbat aburu?

**Z**enbat euskara eta zenbat erdara erabiltzen da Leitzako kaleetan? Zure erantzuna pentsatu, eta ondoren ondokoari galdetu. Eta? Alde handia al dago biek egindako kalkuluen artean?

Erantzun erreala bat izanen da: Leitzako kaleetan entzuten dena euskara edo gaztelania izaten da (portzentaje txikiagoan kitxua, portugesa edo beste hizkuntzaren bat agian), eta proportzio jakin eta zehatz batean gertatuko da. Baina gerta liteke zure irudipena eta zure ondokoarena oso ezberdinak izatea.

Horren froga txiki bat emanen dizuegu hemen. Aurtengo Kultur Aroaren barruan, maiatzaren 25ean, “Argiak eta itzalak euskararen lurraldean” izeneko lanaren aurkezpena egin zen Leitzan, eta saio horretan ariketa txiki bat egin zen. Bertan zirenek fitxa bat bete zuten eta hiru galderari erantzun zioten. Erantzunek, espero zitekeen moduan, erakutsi zuten errealtate bera modu ezberdinetan jasotzen eta pertzibitzen edo hautematen dugula.

Argiago ikus dadin, hona egindako galderak eta emandako erantzunak. (17 erantzun jaso ziren).

## **“Euskararen erabilera Leitzako, kale, taberna eta dendetan, ehunekotan...”**

- % 50 – 1 erantzun**
- % 60 – 4 erantzun**
- % 70 – 5 erantzun**
- % 80 – 3 erantzun**
- % 90 – 4 erantzun**

Denek uste zuten, beraz, Leitzako kale, taberna eta dendetan entzuten denaren erdia gutxienez euskaraz egiten dela; baina alde oso handia dago % 50etik % 90era. Baita % 60tik (4 erantzun) % 90era ere, egia esateko. Erantzun guztiak ikusita, batez bestekoa % 73 ateratzen da. Hain zuzen ere, orain arte egindako kale neurketek erakusten duten batez besteko bertsua. Hor nonbait egonen da erabilera erreala, ziur asko, baina garbi dago pertsonen pertzepzio subjektiboa asko aldatzen dela.

## **“Leitzan euskaldunek ahal duten guztietan euskaraz egiten dute”**

Esaldi horrekiko adostasuna baloratu zen erantzunetan. “Ez nago ados” erantzuteko 1 zenbakia hautatu behar zen, eta “erabat ados nago” erantzuteko 10 zenbakia. Hau da jasotako emaitza.

- 4 – 1 erantzun**
- 6 – 2 erantzun**
- 7 – 10 erantzun**
- 8 – 4 erantzun**

Oraingoan ere iritziak banatuta agertzen dira. Gehienak, nolahi ere, esaldiarekin nahikoa ados zeuden, 17 lagunetik 10ek “7” erantzun baitzuten. 4 erantzun zuenik ere bazen, nolahi ere. Nahikoa ados esan dugu, baina ez “erabat ados”. Alegia, uler dezakegu erantzuna eman zuten gehienek ustez euskaldunok gehienbat eta gehienetan euskaraz egiten dugula, baina ez beti eta ahal dugun guzti-guztietan. Hori ere nahiko bat dator kale neurketek eman dizkiguten emaitzekin.

## **“Leitzan erdaldunek elkarrengana jotzeko joera dute”**

Oraingoan ere, aurrekoan bezala, esaldi honekiko adostasuna baloratu zen erantzunetan. “Ez nago ados” erantzuteko 1 zenbakia hautatu behar zen, eta “erabat ados nago” erantzuteko 10 zenbakia. Emaitza honakoa da:

- 3 – 1 erantzun**
- 5 – 1 erantzun**
- 6 – 1 erantzun**
- 7 – 4 erantzun**
- 8 – 4 erantzun**
- 9 – 3 erantzun**
- 10 – 3 erantzun**

Oraingoan erantzunak barreiatuago agertzen zaizkigu, 3tik 10erainokoak. Ikusten da oro har gehienak nahikoa ados edo oso ados daudela ideia horrekin, baina badira beste muturrerantz jotzen dutenak ere.

Zer erakutsi nahi izan dugu adibide eta datu hauekin? Bada, beste hainbat gairen inguruan gertatzen den bezalaxe, euskararen errealtatearen inguruko usteak, iritziak, pertzepzioak eta ideiak subjektiboak direla, eta dezente alda litezkeela pertsona batetik bestera.

Ziur asko, zenbat eta gehiago hausnartu, zenbat eta gehiago hitz egin eta ideia hauek partekatu, orduan eta hurbilago egonen ginateke elkarrengandik. Besteen usteak ezagutzeak, eta besteek duten informazioa edo datuak jakiteak, gure iritzia bera findu eta osatuko lukete, eta errazagoa izanen litzateke errealtateaz dugun ideia osatuz eta orekatuz gatazka izatea.



# Begoña Lazkano

**B**egoña Lazkano leitzarra da, 32 urte ditu, eta gaur egun astez Donostian bizi da. Ez du Leitzarekin harrimana galdu, nolahi ere, asteburuetan hemen izaten baita, bere herrian.


1997. urtean izandako istripu baten ondorioz Begoñak gurgil-aulkia erabiltzen du eguneroko bizimoduan. Aldaketa sakona ekarri zuen horrek haren bizitzara, baina ederki asko erakutsi du pertsonok badugula egoera askotara moldatzeko gaitasuna eta indarra.

Besteon bizipenetatik ikasgai ederrak jaso ditzakegula begi bistakoa da, eta pentsatu dugu baduela Begoñak zer kontatua eta zer erakutsia MARMARI aldizkari honetarako, bere bizipenetan oinarrituta. Esate baterako, herri barruko mugikortasunari buruz, eta oztopo arkitektonikoei buruz. Edo, esate baterako, aulkian dabilenak kirola egiteko dituen aukerei buruz.

Baina horiek guztiak Begoñak berak azalduko dizkigu, gure galderei erantzunez. Eta, deus baino lehen, gure eskaera erantzuten hartu duen lana eskertu nahi diogu.

■ **13 urte pasa dira istripua izan zenuenetik. Aldaketa sakona, egokitu beharra ere bai. Nolakoa izaten da prozesu hori, aldi ezberdinak izaten al ditu?**

13 urte, erraz esaten da! Aldaketa erabatekoa da bai, bizitzako arlo guztietan



«Eguneroko bizitzan agian lehen oharkabean egiten zenuena orain gehiago baloratzen ikasten duzu»

gainera. Beste era batean baina lehen egiten zenituen gauza gehienak egiten jarrai dezakezu. Eguneroko bizitzan agian lehen oharkabean egiten zenuena orain gehiago baloratzen ikasten duzu. Hasieran ez zara kontzientea gertatu zaizunaz, ez zara egoera berriak dakartzan ondorioen jabe, denborak erakusten du hori. Lehen urtea etetik kanpora eman nuen, nolabait esatearren, eguneroko bizimodura bueltatzean aurkituko nituen egoera ezberdinetara egokitzen ikasten. Baina ez da hain erraza, zure bizilekura itzultzean konturatzen baitzara benetan dauden zailtasunez. Hasteko, etxea egokitu beharra dago gurgil-aulkiarekin moldatu ahal izateko. Kanean ere oztopo asko aurkitzen dituzu, eta irisgarriak eta egokituak dauden lekuak bilatzen dituzu. Unibertsitateko ikasketekin jarraitu ahal izan nuen, igogailuarekin zenbait arazo eduki eta bizilekuz aldatu behar izan arren. Denborarekin, kostata eta pixkana bada ere, zure bizitza bideratuz zoaz.

■ **Non bilatu eta aurkitu zenuen indarra aurrera egiteko eta egin dituzun urratsak egiteko?**

Dudarik gabe, familiaren laguntzagatik ez balitz, gauzak oso ezberdinak lirateke. Beraiei zor diet, neurri handi batean, orain arte lortu dudana. Lagunak ere hor egon dira eta eskertzekoa da. Gogoan dut, hasiera hartan, nola jaso nituen leitzar askok paper zatietan idatzitako animoz betetako mezu ezberdinak. Ilusio handia egin zidan, oraindik ere gordeta dauzkat. Eskerrik asko zuei ere, aurrera segitze-



ko indarra emateagatik. Bartzelonara joateak ere asko lagundu zidan, egoera berrira egokitzen ikasten duzu, zure egoera berean dagoen jendearen esperientziak oso baliagarriak izaten dira eta zure bizipenak konpartitzen dituzu. Nolabait esateko, zure saltsan zaude eta horrek asko laguntzen zaitu.

■ **Non bizi zara gaur egun, eta non egiten duzu lana?**

Leitza eta Donostia artean bizi naiz, denbora gehiena Donostian pasatzen dut baina ni Leitzarra senti-

tzen naiz. Aldatzea dut gustuko. Kimika Zientzietan lizentziatua naiz eta ondoren Gizarte Teknologia Masterra egin nuen, nolabait esateko, bizi kalitatea nola hobetu teknologia eta laguntza teknikoen bidez. Proiektua Gipuzkoako Ezintasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailean egin eta orain bertan egiten dut lan. Ezintasun fisikoa duten pertsonen eskubideak defendatu eta horien integrazioa gizartean bultzatzen dugu, arlo ezberdinak jorratuz.

■ **Badakigu, besteak beste, saskibaloia talde batean aritu zirela. Aukera nondik iritsi zitzaizun, eta zer izan zen horretan hasiera gehien animatu zintuena?**

Bartzelonan kirol ezberdinak praktikatu nituen, saskibaloia, igeriketa, tenisa, arku-tiroa... eta beti izan nuen gogoan saskibaloian saiatzekoa. Kirola egitearen garrantziaz gain, autoestimua igotzen laguntzen dizu. Saskibaloiko talde bat osatu nahian zebiltzala ikasi nuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa mailan argitaratzen den aldizkari batean eta animatu egin nintzen. Bi urte eman nituen, astean bi egunetan entrenatuz baina behatz batean min hartu nuen eta geroztik utzi egin nuen. Niretzat eskuak dena baitira!

■ **Aulkian ibiltzen denak, edo umeen aulkitxoak bultzatu behar duenak, edo adineko jendeak... ederki asko sumatzen du hainbat tokitan sartzeko edo hainbat tokitatik pasatzeko dauden zailtasunak: oztopo arkitektonikoak, espa-**

«Gogoan dut, hasiera hartan, nola jaso nituen leitzar askok paper zatietan idatzitako animoz betetako mezu ezberdinak. Ilusio handia egin zidan, oraindik ere gordeta dauzkat»





«Oztopo arkitektonikoak deuseztatuz guztion bizi kalitatea hobetzen dugu, ez bakarrik ezintasuna dugunona.»

**loiairen gainean aparkatzen diren kotxeak... Zein da horren inguruan duzun esperientzia eta ikuspegia?**

Esperientzia orokorrean txarra esango nuke, agian gauza txarrekin gehiago gogoratzen garelako edota horiek gugan eragin handiagoa dutelako. Oso ohikoa da zebrabideetan, espaloietan eta orokorrean bidea oztopatuz aparkatutako kotxeak ikustea, mugikortasuna mugatua duten pertsonentzat erreserbatutako aparkalekuetan baimenik gabe aparkatzea, legeak agindutako baldintzak betetzen ez dituzten ranpak egotea. Adibide asko eta asko daude, tamalez. Bestalde, Leitzaun daukagun beste arazoetako bat galtzada da, dagoen egoeran egonda, oso deserosoa

eta arriskutsua bihurtzen baita bertatik ibiltzea. Eta honek jende askorengan du eragina, ez bakarrik gurgilaulkia erabiltzen dugunontzat. Jendearen kontzientziario eta borondate falta dela uste dut nik. Arazo guzti hauetaz ohartarazteko, ongi legoke gurgil aulki batean eseri eta momentu batean bederen, eguneroko bizitzan zein oztopo aurkitzen ditugun ikustea. Oztopo arkitektonikoak deuseztatuz guztion bizi kalitatea hobetzen dugu, ez bakarrik ezintasuna dugunona.

■ **Hasiera batean ezinezko edo zail iruditzen zaiguna, saiatur gero, makina bat aldiz lortu egiten dugu. Horren inguruan izanen duzu**

**ideiaren bat egina, akaso. Zerbait esanen zenioke antzeko egoera batean dagoenari, edo, beste gabe, elkarrizketa hau irakurtzen ari den edonori?**

Hori nik uste edozeini gertatzen zaigula, hasieran zaila iruditzea baina behin eta berriro saiatur gero, azkenean bilatzen duzuna lortzea. Gogoratzen dut esaldi bat askotan errepikatzen nuela "nik ezin dut"; baina ez dela existitzen irakatsi zidaten. Eta gerora konturatzen nintzen lortu egiten nuela. Adibide simple bat jartzearren, hasieran nire oinak oso urrun ikusten nituen, ez nintzen gai galtzerdiak eta oinetakoak jartzeko baina azkenean pentsatu gabe egiten duzu. Aholku bat ematekotan, poliki-poliki baina denborarekin zure helburuak lortzen dituzula. Badakit norberari edo gertukoren bati egoera honetan bizitzea tokatzen ez zaion arte, esandako guztiaz jabetzea ez dela erraza baina edozeini, bizitzako etaparen batean, gaur egun ezintasuna duen pertsona baten egoera bizitzea tokatu dakiok.

# Leitza

## Mikel Illarregiren begietan

**A**sko dira ezaugarri bakoitzetik eta ezaugarri bakoitzerako jarri daitezkeen argazkiak. Edota alderantziz ere bai, argazki bakoitzetik ideia ezberdinak aireratu daitezke. Hona hemen batzuk:

“Leitze, ...

Lur berde eta zabal bezain sakon.



Leitze, Iraganaren ondorioa izanik,



aurrera begiratzen du





eta jarraitzeko prest dago



Geroa esperantzaz  
ikusten baitu



Ohiturak, festa eta aldarrikapena  
uztartzen duen jende euskaldunaren  
herria

Izaera ezberdineko herri Euskalduna



Elkartasuna garatu  
ohi den lekua



Behetik gora indarrez,  
argi eta laino artetik bere  
burua altxatzen saiatzen  
den askoren multzoa

# Marmari aldizkaria.

## 10 urteko ibilbidea

**10** urte egin ditu Marmari aldizkariak, eta 20 zenbaki dagoeneko. Leitza eta leitzarrak protagonista beti, hainbat kontu bildu ditugu ibilbide luze horretan. Denak ezingo ditugu hona ekarri, jakina, baina, egindako bidearen erakusgarri eta oroigarri, zenbaki horien guztien azalak ekarri ditugu hona. Hementxe dituzue:



1. zenbakia (2000)






2. zenbakia (2000)




3. zenbakia (2001)



4. zenbakia (2001)



5. zenbakia (2002)



6. zenbakia (2002)



7. zenbakia (2003)



8. zenbakia (2003)



9. zenbakia (2004)



10. zenbakia (2004)





11. zenbakia (2005)




12. zenbakia (2005)



13. zenbakia (2006)



14. zenbakia (2006)




15. zenbakia (2007)



16. zenbakia (2008)



17. zenbakia (2008)



18. zenbakia (2009)



19. zenbakia (2009)



# Maite duzun hitz hori

**J**ende askok oso garbi izaten du zein den bere musika talde kuttuna, gustukuena. Edo kirolari estimatuena, edo futbol-taldea, edo gehien maite duen jakia, edaria, telebistako programa, idazlea, kolorea, zenbakia...

Eta hitza? Ba al dakizu zein den zure gustukuen den hitza, zure hitz gogokoena? Pentsatu al duzu inoiz zein izan litekeen gehien maite duzun hitza? Hura entzunda

edo irakurrita zapore gozoena edo eztieta uzten dizuna? Edo oroitzapenik onenak ekartzen dizkizuna? Edo erre-akzioarik indartsuena sortzen dizuna?

Eta zergatik? Zergatik ote da hitz hori sentimendu edo sententzio horiek eragiten dizkizuna?

Beno, galdera egin dizugu, nahi izanez gero erantzuna zure baitan bila dezazun. Hemen, jarraian, galdera horri zenbait leitzarrek eman dioten erantzuna duzu.



## Joseba Urkiola • AMETS

Hazitzeko, hezitzeko eta bizitzeko pertsona orok beharrezko duen objektu ez ukigarria. Lotan eta itzarrita egiten dugun ekintza bakarrenetakoa. Garena baztertu gabe, izango garena edo izan gaitezkeenari ustezko zentzua eman diezaiokeena. Egunerokotasunari aurre egiteko ezinbestekoa. Hain garesti dagoen irriparre tikiari ongi etorria egin eta esperantzen zein ilusioen atea irekitzeko giltza.



## Maite Perurena • SORGIÑA

Ariketa hau egiterakoan konturatu naiz hitz asko direla maite ditudanak baina bat aukeratu behar: Sorgiña

Hitz honek nerretzat alderdi asko ditu, eta konturatu naiz Historian zehar kontzeptu ezkor eta txarra eman nahi izan baldin bazaio ere, nik matte dudala hitz honek bere osotasunean gogorazten didan guztia: berpizten dit haurtzaroko mitologia eta ipuinen fantasi giro hori, nere inguruan sortzen diren sendabelar eta perretxikuak ezagutzeko gogo hori, kristau aurreko emakumearen kontzeptu misteriotso, sexual eta moralaren kontrako hori, pertsona guztiok gure baitan dugun alderdi bihurri eta errebelde hori.



## Kristina Urrutia • MIZKA

Oso zaila da gurea bezain hizkuntza aberatsetik hitz bakar bat aukeratzea maite duzun hitza dela edo gustukoena dela adierazteko; baina nik gaur MIZKA hitza aukeratu dut. Deigarria egin zaidalako guk etxetik ikasi eta gure ondorengoek ere hain natural jaso eta erabiltzen duten hitza ondokoek inoiz entzun gabea izatea. Maddi tikiak eskuak goxokiren batekin zikindutakoan eskuak MIZKATUTA zituela esan zion Ibarako amonari, MIZKA zuela eta garbitzeko mesedez, baina Ibarako etxean ez zion inork ulertu, ez zutelako MIZKA hitza sekula entzun.

Orain badakite, Maddik lasai asko erabiltzen duelako Goizuetatik jaso dugun MIZKA edo MIZKATUTA IZATEA esamoldea.



## Juan Mari Barriola • LASAI

Ez da errea galdera, bizitzako une bakoitzak bere hitza baitu. Momentu honetan LASAI esanen nuke gustukoena dudala, bere esanahiarengatik batez ere. Gizarte honetan dena presaka egiten ohitzen ari gara, eta emaitzak ere azkar etortzen direla uste izaten dugu. Frutak bere denbora behar du ontzen zuhaitzean, eta bere denboran ontzen da, ez azkarrago; berdin gauza guztiek beren denbora behar dute, eta jakin behar da lasai itxaroten emaitzak ikusteko eta dastatzeko. Abiadura handiak ez du gauzak abudoago osatuko direnik ekartzen. Geure buruekin barre

egiten jakin behar dugu, bizitza lasaiago hartuz, eta okerren erru guztiak besteei bota gabe.



## Saioa Sagastibeltza • LASAI

Ez nuen sekula horretan pentsatu, baina buruari pare bat buelta eman ondoren hitz sinple baina bizi dugun garairako esanguratsua dena aukeratuko nuke nik: LASAI hitza.

Eta zergatik? Bada, batetik, pertsona *lasaia* nekez larritzen delako egungo mundu ero honetan. Bestalde, zergatik ez, arropa *lasaietan* askoz ere gusturago ibiltzen garelako, arnasa hartzen ere larri uzten diguten gaurko modako jantzi batzuekin gertatzen ez den bezala. Honez gain, korapilo *lasaiak* errazago askatzen diren be-

zala, askoz ere hobeki moldatzen garelako gu *lasai-lasai* eseri eta gustura hitz egiteko beta hartzen dugunean. Eta azkenik, urduri edo arazoren baten aurrean asmatu ezinik nabilenean “*egon zaitetz lasai*” esaten didatenean amorrazio galanta ematen badit ere, gauzak lasaitasunez, patxadaz hartzen dakien pertsonak pozik bizitzeko aurreneko pausoa emana duela iruditzen zaidalako neroni ere. Hori bai, zeinek asmatu horretan beti?





## Elena Irigoien • AIO

Ni euskaldun berria naiz, eta gainera Sakanakoa, beraz, AGUR hitza erabiltzen nuen agurtzeko. Hemen eta inguruko leketan AIO hitza ezagutu nuenean oso polita eta berezia, deigarria iruditu zitzaidan. Oroitzen naiz pentsatu nuela “gustatuko litzaidake AIO esaten ohitzea”; gaur egun, ia zortzi urte pasa ondoren, beti AIO erabiltzen dut. Leitzako eta inguruko beste hitzak bezala, hau ere nirea egin dut.



## Saioa Iraola • MATTE


Hitz bat aukeratzea. Aukera eta hitza. Egunerokotasunean ehunka hitz erabiltzen ditut, baina bat aukeratzekotan, *matte* hitza dut gustukoena.

Hitzak, berak, adiera anitz izan ditzakeen arren, ematen diodan erabilerak egiten du berezi. Gertukoak ditudanei, konplizitatea elkartrukatzan didatenei, goxotasuna eta konfiantza transmititzen didatenei izenpetzeko erabiltzen dut. Baina azken denboraldian falta dudana hitza da. Azken urtetan elkarrekin bizi, elkar maitatu eta goxatu garen lagunari begietara begiratu eta *matte* esatea faltan dut. *Matte, matte zattu!*



## Ima Zestau • “ITTUZURE”

Irakasle-eskola ikasten ari nintzela, Donostian, 8 euskaldun bizi ginen pisu batean; naparrak batzuk eta gipuzkoarrak besteak. Kontua da ittuzurek izan genituela pisuan eta han hasi ginen, bakoitzak bereari utsiz: “iztuzurek, itzuzurek, itxuzurek, ittozurek...”. Honetan ere, zenbat buru hainbat hitz. Horri esker hasi nintzen hizkuntzaren aldaerak errespetatzen eta euskalkiak baloratzen.



## Pontxito Irurtia • MUSU

Zergatik aukeratu dudana?

1. Entzutea atsegina zaidalako
2. Bere esanahi nagusiagatik: “Goizeko eguzkiak laztandu gaitzala zure **musu** goxoen antzera” (laztan, besarkada, mun).
3. Har ditzakeen beste esanahiengatik: Zub**imusu** (nire jaiotetxea), **musu**truk, **musu**zapi, **musu**rdin.

Leitzako Gaztetxea

# Atekabeltza



«Leitzeko gazteen beharrak  
asetzeko lokal bat izatea  
ezinbestekoa da»





**A**tekabeltza Gaztetxeak bost urte eginen ditu aurtengo udan. Bost urte gauzak egiten eta antolatzen, bost urte lanean. Ibilbide horren inguruan zer edo zer jakin nahian haiengana jo dugu, eta jarraian duzuen elkarrizketa hau egin diegu:

■ **Leitzak izan zuen gaztetxea garai batean, duela 20-25 urte inguru. Urteetako eten baten ondoren, orain berriz ere badugu. Atakabeltzan dagoen gaztetxearen historia kontatuko diguzue? Noiz eta nola sortu zen? Zer bide egin du?**

Gaztetxea okupatu aurretik herrian bazen gazte asanblada bat eta bertan ikusi genuen Leitzeko gazteen beharrak asetzeko lokal bat izatea ezinbestekoa zela.

Hori zela eta, lehenik eta behin, udalari lokal bat eskatu genion eta gure eskaera ukatu zuten. Orduan, herrian hutsik zeuden hainbat eraikinetan pentsatzen aritu ondoren, egokiena Atekabeltz okupatzea zela ohartu ginen.

Herritar guztiek zuten etxe hau ikusteko aukera udaletxean giltza eskatuta. Egun batean, giltza eskatu eta etxea ikusi ondoren bertan geratzea erabaki genuen eta alkateari esan genion gure erabakia. Hori dena 2005eko uztailearen 20an gertatu zen.

Hasiera batetik, udalak etxea oso egoera tamalgarririan zegoela esan zigun. Nahiz eta guri ez hala iruditu, badaezpada ere, aparejadore bat etxea ikustera joan zen. Egin behar genituen konponketak zeintzuk ziren esanda, urtebeteko lan luzeari ekin genion.

Urtebetean zehar egin ziren aldaketa horiek. Hori dena, auzolanaren bidez. 2006ko uztailearen 20an “inauguratu” genuen gaztetxea eta orduz geroztik hainbat ekimen burutu ditugu, hala nola, kontzertuak, tailerrak, hitzaldiak, erakusketak, txapelketak...

■ **Zein da gaztetxe batek herri batean daukan funtzioa? Zertarako edo zergatik behar da gaztetxe bat Leitzan?**

Hasteko, Gaztetxe bat herriari eskaintzen zaion alternatiba bat da. Garai haietan, lokalak eta tabernak besterik ez zeudenez, gazteria kontsumitzera behartuta zegoen eta lokaletan harremanak koadrilletara mugatzen ziren. Azken finean, aisialdirako leku bat da, baina baita gazteok sortu, antolatu eta borrokatzeko lekua ere. Aldi berean, herrian dauden etxe hutsei erabilpen bat emateko modu bat da.



■ **Gaurko eraikinaz ere esan dezagun zer edo zer: nolako etxea duzue, nola moldatu duzue...?**

Lehenik eta behin, Atekabeltza leku sinboliko bat da, ehun urtean zehar guardia zibilek okupatuta izatetik, gaur egun herriko gazteen eskuetara pasatu delako.

Etxea oso handia denez, gazteez gain, eragile ezberdinek erabiltzen dute. Etxearen moldaketari dagokionez, auzolanaren bidez egiten da, hasiera baten lehen aipatu dugun bezala obra garrantzitsua egin zen, eta gaur egun, beharrak ikusten diren heinean, etxearen moldaketari ekiten diogu. Auzolanetarako dirua, antolatzen diren gauza ezberdinetatik ateratzen da.

■ **Gaztetxea, zalantzarik gabe, etxe edo eraikin soil bat baino dezentez gehiago da. Bizirik dagoen zerbait da. Zer da Leitzako gaztetxean urtean zehar egiten dena? Eta nola mantentzen da bizirik horrelako gune bat?**

«Gaztetxe bat herriari eskaintzen zaion alternatiba bat da»

«Gaztetxea aisialdirako leku bat da, baina baita gazteok sortu, antolatu eta borrokatzeko lekua ere. Aldi berean, herrian dauden etxe hutsei erabilpen bat emateko modu bat da»

Zaila da martxa eramatea urte guztian zehar asanbladako kide gehienek herritik kanpo ikasten dutelako eta, hori dela eta, elkartzeko zailtasunak izaten ditugulako. Talde txikia osatzen dugun arren, autogestioaren eta talde lanaren bitartez mantentzen dugu bizirik gaztetxea. Horretaz gain, baita eragileek antolatutako gauzekin eta elkarlanarekin ere.

■ **Nola antolatzen duzue Gaztetxearen barruko funtzionamendua? Nola banatzen dituzue egin beharrekoak, eta nola hartzen dituzue erabakiak?**

Aurrez aipatu bezala, erabakiak asanbladetan hartzen ditugu. Egin beharrekoak banatzeko orduan, norberak ikusten du zer egitea gustatuko litzaiokeen edo zertan "aportatu" dezakeen gehien.

■ **Eguneroko lanak eta gaztetxea bizirik mantentzeak izanen ditu, ziur asko, zailtasunak. Zein dira zailtasun horiek?**





Lehen aipatu dugun bezala, zailtasun bat asanbladako kideon denbora falta da, baina zailtasun handiena jendearen pasibitatea eta inplikazio falta da. Baita askotan jasaten dugun errespresioa ere. Honen adibide garbiak dira identifikazioak, baita aurtengo ihoteetako “sudur gorriarengatik” irekitako diligentziak ere.

■ **Eta aurrera jarraitzeko laguntza nondik jasotzen duzue: gazteak, autogestioa, udala, herritarrak...?**

zirik eta antolatzen diren gauzen parte sentitzea. Honekin, herritar orori esan nahi diogu Gaztetxea irekita dagoela herriarentzat antolatu nahi den edozer tarako.

■ **Inguruan –Goizuetan, esaterako–, eta baita urrutiago ere, badira gaztetxe gehiago. Ba al duzue haiekin harremanik? Nolakoa da harreman hori: egonkorra, tarteka elkartzen zarete...?**

## «Herritar orori esan nahi diogu Gaztetxea irekita dagoela herriarentzat antolatu nahi den edozer tarako»

Guk aurrera jarraitzeko behar duguna ez da laguntza, jendearen inplikazioa baizik, jendeak gauzak antolatzeko inizatiba izatea. Hau da, ez soilik guk antolatutako gauzetan parte hartzea bai-

Goizuetakoekin hainbat topaketa egin dira. Bestetik, Euskal Herriko Gaztetxeen koordinadora bat bada eta bertan parte hartu izan dugu, horren adibide bat da duela urte batzuk Leitzatik pasatu zen Gaztetxe Martxa eta baita duela gutxi Altsasun ospatutako Gaztetxe Eguna ere.

Momentu honetan, Nafarroako Gazte Asanbladaren (NAGA) partaide gara eta bertan Nafarroako Gaztetxe eta Gazte Asanbladen martxa antolatzen ari gara. Uztailaren 26tik 31ra izanen da eta Leitzatik 28an pasako da.

■ **Bizimodua eta ohiturak aldatu direla esaten da, baina duela 25 urte baziren gaztetxeak, eta orain ere badira, Leitzakoa besteak beste. Ikusten al diozue etorkizunik gaztetxeen mugimenduari?**

Etorkizuna bai. Gizarte eredu honek jarraitzen duen bitartean beti egongo dira Gaztetxeak. Beharrezkoa ikusten dugu horrelako alternatibak egotea. Nahitaezkoa baita, pertsona sumiso, indibidualistak eta berekoiak ez izateko.

Eta amaitzeko, beste aipamenen bat: esate baterako, herritarrak animatu nahi ditugula gauzak antolatzera, Gaztetxea irekita dagoelako edo nork herriarentzako gauzak antolatzeko.

Eta gogoratu behar da, bestalde, aurten 5. urteurrena ospatzen dugula eta uztailaren 19tik 24ra hainbat ekitaldi gauzatuko direla: hitzaldiak, mendi irteerak, tailerrak, parranda...





# Munduko hotsak Leitzan

**H**onako galdera eginen balizute: *Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Leitzan? Zer esanen zenuke?* Agian, gutako gehienok eta bat-batean, “bi” erantzunen genuke. Euskara eta gaztelania.

Eta hori al da erantzun zuzena? Ez. Leitzan hizkuntza gehiago erabiltzen da.

Zerorrek ere, pixka bat pentsatu ondoren, ziur asko bat-batean emandako erantzuna aldatuko zenuke, eta beste

hizkuntzaren bat erantsi: “Euskara eta gaztelania bai, baina beste etxe honetan halakoa hitz egiten da, aita edo ama ez dakit nongoa delako. A! eta herrialde horretako etorkinek beren artean beren hizkuntza erabiltzen dute”.

Guk dakigula, Leitzan gutxienez 10 hizkuntza hitz egiten dira, gehiago edo gutxiago. Honakoak, hain zuzen ere: euskara, gaztelania, kitxua, katalana, ukrainera, arabiera, portugesa, ingeleza, nederlandera eta alemana. Baliteke

beste bateren bat izatea, baina guk horien berri daukagu.

Horietako bik, euskarak eta gaztelaniak, oso presentzia handia dute eguneroko bizitzan. Gainerakoak, berriz, nahikoa mugatuta daude etorri berrien kolektibo jakin batzuetan edo zenbait familiatan. Ez dugu esanen, noski, hizkuntza horiek guztiak Leitzan maila berean daudenik, baina bai denen arrastoa egunero aurki genezakeela gure herrian.



Aipatutako hizkuntza gehienak hurbil samarrak eginen zaizkigu, segur aski. Gure euskaraz gain, gehienak nahikoa hurbilekoak dira, edo nahikoa ezagunak egiten zaizkigu: katalana, portugesa, gaztelania, ingelesa, alemana. Arabiera ere nahikoa ezaguna da gure artean, zalantzarik gabe. Baita kitxua ere, agian. Kitxua Ekuadorretik etorri direnek erabiltzen duten hizkuntza da. Hego Ameriketako herrialde askotan gaztelania hizkuntza ofiziala eta nagusia bada ere, bertako hizkuntza ugari bizi da hango lurretan, eta kitxua horietako bat da.

Geografikoki hurbilago dauden arren, behar bada oso ezagun ez ditugun bi hizkuntza aipatu ditugu. Bata nederlandera da. Belgikako Flandrian hitz egiten da, eta han flamenkera deitzen diote. Nederlanderaren beste dialekto nagusia Holandan hitz egiten dena da, holandera deitu izan dena.

Eta bestea ukrainera da. Hemen Ukrainako etorkinik ez dagoenez, ukraineraren aipamenak harridura sortuko dizu akaso. Kontua da Leitza bizi diren errumaniarren berezko hizkuntza ez dela errumaniera,

ukrainera baizik. Errumaniako iparraldekoak dira, eta han egiten den hizkuntza huraxe da, ukrainera. Bertiko kontua da: estatuen mapak edo mapa politikoak ez datoz bat hizkuntzen mapekin. Ez dugu oso urruti joan behar antzekorik ikusteko, euskararekin gauza bera gertatzen baita.

Horiek dira, beraz, guk dakigunez, Leitza gutxi asko entzun daitezkeen hizkuntzak. Ondoko fitxa hauetan horietako bakoitzari buruzko zenbait datu emanen dizkizuegu, hobekixeago ezagutu ditzazuen.

### KITXUA

Lurraldea	Ekuador, Peru, Bolivia, Kolonbia, Argentina eta Txile.
Hiztun kopurua	10 milioi hiztun.
Estatua	Boliviako 35 hizkuntza ofizialetako bat da. Ekuador, Peru eta Kolonbian bigarren hizkuntza ofiziala da, gaztelaniaren ondotik. Hainbat ingurutan mehatxupean dago.
Hizkuntza familia	Kitxuaren barruan dialekto edo hizkuntza ezberdinak daude, kitxuaren familia osatzen dutenak.

### PORTUGESA

Lurraldea	Portugal, Brasil, Angola, Ginea Bissau, Mozambique, Cabo Verde, Sao Tome eta Principe, Ekialdeko Timor, Ekuatore Ginea, India eta Macao (Txina).
Hiztun kopurua	280 milioi hiztun (horietako 30 milioi bigarren hizkuntza gisa).
Estatua	Ofiziala da zenbait estatutan: Portugal, Brasil, Ekialdeko Timor eta Macao.
Hizkuntza familia	Erromantzea, Indoeuropar familiakoa.

### INGELESA

Lurraldea	Erresuma Batuaz gain, Ameriketako, Afrikako, Ozeaniako eta Asiako hainbat estatutan erabiltzen da.
Hiztun kopurua	508 milioi hiztun (horietako 200 milioi bigarren hizkuntza gisa). Munduko nazioarteko hizkuntza nagusia da gaur egun, eta etengabe hedatzen ari da.
Estatua	Ofiziala da 60 inguru estatutan.
Hizkuntza familia	Germaniarra, Indoeuropar familiakoa.

### ALEMANA

Lurraldea	Alemania, Austria, Suitza, Luxenburgo, Liechtenstein, Belgika, Italia, Frantzia, Danimarka eta Polonia.
Hiztun kopurua	120 milioi hiztun.
Estatua	Hizkuntza ofizial bakarra da Alemanian, Austrian eta Liechtensteinen, eta koofiziala Belgikan, Luxenburgon, Suitzan eta Italiako eskualde batzuetan.
Hizkuntza familia	Germaniarra, Indoeuropar familiakoa.

## UKRAINERA

Lurraldea	Ukraina. Gutxiengoak dauzka Polonia, Errusia, Bielorrusia, Eslovakia, Moldavia, Hungaria, Errumania, Serbia eta Kazajistanen.
Hiztun kopurua	41 milioi hiztun.
Estatua	Ofiziala da Ukrainan eta Moldaviako eskualde batean (Transnistria).
Hizkuntza familia	Eslaviarra, Indoeuropar familiakoa.

## NEDERLANDERA

Lurraldea	Belgika, Herbehereak, Antilla nederlandarrak, Aruba, Surinam eta Indonesia.
Hiztun kopurua	22 milioi hiztun.
Estatua	Ofiziala da Herbehereetan, Antilla nederlandetarretan, Aruban, Surinamen eta Belgikan.
Hizkuntza familia	Germaniarra, Indoeuropar familiakoa.

## GAZTELANIA

Lurraldea	Espainiako estatuaz gain, beste 30 estatu ingurutan ere hitz egiten da. Ameriketan batez ere, baina baita Asia eta Afrikako ingururen batean ere.
Hiztun kopurua	450-500 milioi inguru hiztun (horietako 100 inguru bigarren hizkuntza gisa).
Estatua	Ofiziala da 27 estatutan (5 Afrikan, 21 Ameriketan, 1 Europan eta 1 Ozeanian).
Hizkuntza familia	Erromantzea, Indoeuropar familiakoa.

## KATALANA

Lurraldea	Espainiar estatua, Frantziako estatua, Andorra eta Italia.
Hiztun kopurua	7,7 milioi hiztun.
Estatua	Ofiziala da Espainiar estatuan eta Andorran.
Hizkuntza familia	Erromantzea, Indoeuropar familiakoa.

## ARABIERA

Lurraldea	Afrika eta Asiako 19 estatutan hitz egiten da: Aljeria, Egipto, Irak, Libano, Yemen, Sudan, Mauritania... Gutxiengoak ditu hainbat estatutan.
Hiztun kopurua	530 milioi hiztun (horietatik 230 bigarren hizkuntza gisa).
Estatua	Ofiziala da Afrika eta Asiako 19 estatutan, eta koofiziala beste 6tan.
Hizkuntza familia	Semitikoa, Afroasiarren familiakoa.

Horiek, beraz, Leitzan asko edo gutxi entzun litezkeen hizkuntzak. Uste zenuena baino gehiago al da? Edo uste zenuena baino gutxiago? Ustekabekorik? Leitzan 10 hizkuntza bildu ditugu, Euskal Herrian 110 inguru omen dira, eta munduari kolorea ematen dioten 6.000 hizkuntza bizi dira gure planetan. Ez da beti erraza izaten horien aztarna aurkitzea edo haien soinua aditzea, baina hor-txe daude.

Eta hizkuntza baten ondoan, askotan, kultura bat, herri bat. Leitzara Ekuadorretik etorritakoak badakite gaztelaniaz, guk bezalaxe, baina guk bezalaxe badu-

te beren hizkuntza propioa, kitxua hain zuzen. Eta errumaniarrek badakite errumaniaraz, baina beren hizkuntza propioa beste bat da, ukrainera. Eta hizkuntza horietako bakoitzak bere historia, bilakaera eta egoera berezia du, kultura baten parte da, ziur asko garrantzitsua oso hiztunentzat. Ezingo dugu hizkuntza horietako bakoitzean nahi adina sakondu hemen, baina gutxienez haien aipamena egitea merezi duela uste dugu.

Eta Leitzan aditzen diren hizkuntzen inguruko gogoetatxo hau bukatzeko: euskarak eta gaztelaniak presentzia handia dutela aipatu dugu, eta hala da,

bistan denez. Interesgarria izanen litza-teke, bestalde, ingelesak gaur egun Leitzan hartu duen tokia zein den jakitea. Kanean normalean ez dugu entzunen, baina zenbat leitzarrek erabiltzen du ingeleza Interneten, esate baterako? Eta zenbat aldatu da proportzio hori azkeneko 10 urteotan? Eta zer hizkuntzari kendu dio tokia ingelesak, euskarari edo gaztelaniari? Ez dugu datu zehatzik galdera horri erantzuteko, ezta errealitate horren behar bezalako balorazio bat egiteko ere, baina gertatzen ari den zerba-it delira iruditzen zaigu, agian inoiz argituz joanen garena.



## LETRA-ZOPA

Letra-zopa honetan Leitzan bizi diren 10 hizkuntza aurkitu behar dituzu. Honakoak: alemana, inglesa, nederlandera, euskara, gaztelania, portugesa, ukrainera, arabiera, katalana eta kitxua.

A	F	T	U	M	L	I	I	K	E	N	O	P	A
G	A	Z	T	E	L	A	N	I	A	E	S	N	A
O	R	B	A	U	H	K	A	T	I	D	E	P	R
S	E	A	S	I	G	A	L	X	T	E	O	S	A
A	N	O	E	K	E	B	E	U	Z	R	N	U	B
L	I	A	L	E	M	A	N	A	T	L	I	Z	I
I	A	S	G	O	S	N	O	U	M	A	G	E	E
E	R	O	N	S	E	Z	G	H	I	N	E	H	R
S	K	L	I	A	Z	E	I	A	F	O	A	Z	A
B	U	U	I	L	S	I	R	L	O	E	B	I	E
E	G	S	I	A	E	U	S	K	A	R	A	B	Z
Z	I	R	O	A	N	A	L	A	T	A	K	U	G

## Zenbat hiztun dauzka hizkuntza hauetako bakoitzak?

- |                 |                       |
|-----------------|-----------------------|
| a) Alemana      | 1) 800.000 hiztun     |
| b) Inglesa      | 2) 280 milioi hiztun  |
| c) Nederlandera | 3) 508 milioi hiztun  |
| d) Euskara      | 4) 10 milioi hiztun   |
| e) Gaztelania   | 5) 120 milioi hiztun  |
| f) Portugesa    | 6) 41 milioi hiztun   |
| g) Ukrainera    | 7) 22 milioi hiztun   |
| h) Arabiera     | 8) 450 milioi hiztun  |
| i) Katalana     | 9) 530 milioi hiztun  |
| j) Kitxua       | 10) 7,7 milioi hiztun |

Soluzioak:  
a-5; b-3; c-7; d-1; e-8; f-2; g-6; h-9; i-10; j-4

## ASMAKIZUNAK (iturria: <http://www.zernola.net>)

1. Altzaporrura bidean zazpi atsorekin gurutzatu naiz. Atso bakoitzak zazpi zaku zeramatzan eta zaku bakoitzean zazpi arkume. Zenbat lagun eta arkume zihozazen Altzaporrura bidean?
2. Nola zula liteke globo bat bertatik airerik atera gabe eta zaratarik egin gabe?
3. Oso gizen dauden hiru lagun ermitara abiatu dira euritako bakarrarekin. Ermitara iristean, ordea, guztiak lehor-lehor daude; nola liteke?
4. Hil batzuek 31 egun dituzte; 30ekoak ere badira. Baina zenbatek dituzte 28 egun?

1. Bat ere ez; ni nindoan Altzaporrura, ez atsoak.
2. Globoa hutsik egonda. Edo globo puztuari zinta itsaskorra jarri eta bertatik orratza sartuta.
3. Ateri da.
4. Guztiak.

# zer diozu?

## eta zuk,

### Junkal Elizalde



- Zein da zuretzat urteko egunik onena? Oporretako lehen eguna.
- Eta egun horretako momenturik onena? Esnatu eta ohean gera naitekeela ohartzen naizenean.
- Taberna bat izanen bazenu, zer izen jarriko zenioke? Ongi Etorri (eta Ongi Joan), jaja!
- Eta arropa-denda izanen balitz? *Tentazio* hitzarekin zerikusia duen zerbait.
- Hiruna hitz, jarraian emanen dizkizugun hauekin lotzen dituzunak:  
**DIBERTIGARRIA:** barre-algaraka aritzea, konpainia ona, San Ferminak.  
**ASPERGARRIA:** futbola, diru-kontuak, meza.  
**MAITAGARRIA:** dokumentaletako tigre kumeak, etxeokak, halabeharrez orain kanpoan den lagun bat.  
**GORROTAGARRIA:** errepresioa, zenbaiten traizioa, pederastak.  
**HARRIGARRIA:** naturaren misterioak, bo-teretsuen bihotzik eza, Iñaki Perurenaren indarra.
- Leitzara bisitan etorri den zure lagun horri, zer erakutsiko zenioke? Mendia, Eguzkizko Muinoa, esaterako.
- Eta zure lagun leitzar horri, nora gomendatuko zenioke oporretara joatea? Parisa.
- Asteburua etxetik atera gabe pasatzeko plan bat: kuttunakin.
- Hilabetea etxetik atera gabe pasatzeko plan bat: angina izugarri batzuk, akaso!

### Iban Urtiaga

- Zein da zuretzat urteko egunik onena? Uztailak 6, sanferminak.
- Eta egun horretako momenturik onena? Egun osoa, ezin dot momentu bat aukeratu.
- Taberna bat izanen bazenu, zer izen jarriko zenioke? Iratxo.
- Eta arropa-denda izanen balitz? Biluzik.
- Hiruna hitz, jarraian emanen dizkizugun hauekin lotzen dituzunak:  
**DIBERTIGARRIA:** lagunartea, kirola, parranda.  
**ASPERGARRIA:** inaktibitatea, telebista, meza.  
**MAITAGARRIA:** Euskal Herria, lagunak, askatasuna.  
**GORROTAGARRIA:** hipokrisia, alperkeria, zapalkuntza.  
**HARRIGARRIA:** Euskal Herriko borroka, antolakuntza, mendiak.
- Leitzara bisitan etorri den zure lagun horri, zer erakutsiko zenioke? Leitzalarrea.
- Eta zure lagun leitzar horri, nora gomendatuko zenioke oporretara joatea? Irlanda edo Girona.
- Asteburua etxetik atera gabe pasatzeko plan bat: ongi pasatzeko eta hitz egiteko gogoia duten lagun batzuk eraman.
- Hilabetea etxetik atera gabe pasatzeko plan bat: niretzako ezinezkoa da; bestela pazientziarekin hartu.

